EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

KONTSUMOAK ETA EKOIZPENAK LOTURA ZUZENA DUTE INGURUMENAREKIN.

BEREZ, BALIABIDEEN ESKARIAK ERAGIN SUNTSIGARRIAK DAKARTZA PLANETARENTZAT.

AZKEN MENDEAN ZEHAR, HAZKUNDE EKONOMIKOA GELDIEZINA IZAN DA.

BAINA INGURUMENAREN DEGRADAZIOA ERE EKARRI DU.

ERRITMO HONETAN ETA BIZTANLERIAREN AREAGOTZEAREKIN, 2050. URTERAKO LURRA BEZALAKO HIRU PLANETA BEHARKO DITUGU GURE UNEKO BIZI ESTILOA MANTENTZEKO BEHAR DITUGUN BALIABIDEAK ESKURATZEKO.

GAUZA DA BALIABIDEAK GAIZKI ERABILTZEN DITUGULA.

URA, ADIBIDEZ.

NOSKI, URAREN % 3 BAKARRIK DA EDATEKO MODUKOA, ETA NATURAK URA GARBITZEKO BEHAR DUEN DENBORA BAINO AZKARRAGO KUTSATZEN DUGU GUK.

ETXEETAN KONTSUMITZEN DA ENERGIA GUZTIAREN % 29.

GUZTIOK BONBILLAK KONTSUMO TXIKIKO BESTE BATZUEKIN ORDEZKATZEAREKIN BAKARRIK MILIOIKA EURO AURREZTUKO LIRATEKE ETA ASKOZ ERE GUTXIAGO KUTSATUKO LITZATEKE.

EKOIZTEN DEN JANARIAREN HEREN BAT ZABORRONTZIRA DOA.

EKOIZPEN HORREK ERAGINA DU INGURUMENEAN: BASOAK SOILTZEN DIRA NEKAZARITZARAKO ERABILTZEKO, URA XAHUTZEN DA, ONGARRIAK...

KONTSUMO ETA EKOIZPEN JASANGARRIEN HELBURUA DA GUTXIAGOREKIN GAUZA GEHIAGO ETA HOBEAK LORTZEA.

HORRELA ETENGO DUGU HAZKUNDE EKONOMIKOAREN ETA INGURUMENAREN DEGRADAZIOAREN ARTEKO LOTURA.

NIK, KONTSUMITZAILE GISA, NIRE HONDAKINAK MURRIZTUKO DITUT PLASTIKO GUTXIAGO ERABILITA, ETA POLTSA BERRERABILGARRIA ERAMANGO DUT EROSKETARA.

NIK INGURUMENA KONTUAN HARTUKO DUT EROSTEKO ORDUAN ETA ENPRESA JASANGARRIEN ALDEKO APUSTUA EGINGO DUT.